

## PUENTING NOLA EGIN HANKA HAUTSIAREKIN

Hau gogoa astelehena iristeko! Urtebete lanean pasa ondoren, guk ere merezitakoa jaso beharko dugu ba? Kaixo! Eta barkatu horrela hasi izana nire aurkezpena, baina emozionatuta nago. Ni Elaia izeneko neska bat naiz eta 13 urte ditut. Nire ustez, pertsona normal bat naiz, nire adineko edonor bezalakoxea. Izateko eraz, aipatu behar da abentura gustuko dudala, baina baita lasaitasuna ere. Nire zaletasunen artean, futbola, mendizaletasuna, marrazketa eta dantza daude. Oraintxe bertan gainera, futboleko partida bat jolastera joatekoa naiz.

Ordubeteren buruan, futbol zelaian gaude, dagoeneko arropaz aldatu eta aurkariari begira. Gu baino urtebete gazteago omen dira, Lazkaotarrak.

-Orain partida irabazi eta asteartean puenting!- horiexek izan dira Mireiak partida hasi aurretik emandako animoak. Ez da oso ona izan, hala ere, hasiera, bost minuturako 1-0 galtzen bai goaz. Hamar minutu geroago, baloia pasa eta atezainarengana hurbiltzen noala, bat-batean, hanka bihurritu eta lurrera erori naiz, gainera.

-Ondo al zaude, Elaia?- galdetu dit entrenatzaileak partidua geldiaraziz.

-Bai, ez da ezer- gezurra esan eta zutitu egin naiz. Bi pauso egitean, berriro erori naiz, ordea.

-Hanka hori begiratu beharko zenuke, neska- atzetik arbitroak.

-Geuk eramango zaitugu medikuarengana- ondoren gurasoek.

Ordubete pasa eta "berri txarrak ", horiexek amaren ahotik irten diren hitzak.

-Medikuak esan duenez oraingoan hautsi egin duzu hanka eta beraz, zure esku dago kanpinera egin behar duzuen 3 eguneko irteerara joan edo ez. Zure egoeran egongo banintz, hemen geratuko nintzateke.

-Eta puenting ez egin? Kanpinean pasako ditugun egun paregabeak galdu? Igeltsatutako hanka izango dut lagun, baina horrek ez du nire erabakia aldatuko, ez horixe! Horrelako aukerarik ez nuke galduko, ezta...

-Baina, Elai! Hanka horrela edukita, ezingo duzu puenting egin!

-Ez, ama. Alferrik ari zara. Erabakia hartuta dago eta zuk nahi edo ez, ni banoa!

Gaur jaso dudan albisterik honena azkenean partida 2-1 irabazi dugula izan da.

\*\*\*\*\*

Halaxe, igande arratsalde osoa maleta egiten pasa ondoren, gaur goizean belarri batetik besterako irribarrearekin eta eskaiolatutako hankarekin iritsi naiz lagunengana. Logikoa den bezala, denek nahi zuten beren sinadura edo marrazkiren bat hanka madarikatuan pintatu. Azkenean, irakasleek botatako oihu batzuen atzetik sartu gara denok berandu autobusean. Gaurkoan ere, bidaia luzea genuela eta, beti jartzen duten Harry Potter-en pelikula aspergarria ipini dute. Protesta batzuen ondoren lortu dugu filma kentzea eta orduan, beti bezala abesten joan gara. Primeran pasa dugu tontoarena egiten eta batez ere, ondoan pasatzen zen jende xeblearen aurpegiez barre egiten. Ordu eta erdiko bidaia luzearen ondoren, bazkaltzeko tokia aurkitu eta lasai-lasai etzanda hitz egiten jardun gara. Ondoren, zoritxarrez, ibilaldi bat egiteko asmoa zutenez, Mari Karmen irakasle ipurtandi eta alferrarekin geratu naiz. Gainontzeko kideak itzuli arte, ez du ezertxo ere esan eta horregatik, asper-asper eginda pasa dut arratsaldea. Lagunak iritsi direnerako, urteak pasa direla iruditu zait. Berriro ere autobusa hartu, eta oraingoan, kanpinera joan gara. Bertan, arau batzuk eman ondoren, kanpinak jartzeko toki aproposaren bila joan gara eta hau egitean, plastikozko poltsa luze bat hankan jarririk, igerilekuan bainatu gara.

-Afaltzera!

Dagoeneko afaltzeko ordua da? Ezin dut sinetsi! Bainatu eta ez dugu ba gauza askorik egin. Dutzatzeko eta kartetan aritzeko denbora pittina besterik ez dugu izan eta. Oinetakoak jantzi eta jangelara sartzeko pilatu gara. Horrenbeste ume ginenez, taldeka bakarrik utzi digute sartzen. Beno, guk ez daukagu kexatzerik, hanka puskatuta dudala ikustean, irakasleek lehenengo sartzeko aukera eman baitigute. Afaria bukatutakoan, kanpoko freskurara irten gara, barruan ez baitigute geratzen utzi. Zerura begiratu eta dagoeneko gaueko lehenengo izarrak pizten ikusi ditugu. Oraindik lotara joaterako denbora genuenez, kanpinari itzulinguru bat ematera joan gara.

-Izugarrizko gogoak daukat biharko eguna iristeko- hasi da Miren.

-Zer ba?- galdetu du ondoren, Saioak.

-Galdetu egiten duzu? Zertarako gogoak izango ditut ba! Puenting egiteko irrikan nago.

-Arrazoi duzu. Nik ere gustura egingo nuke salto- esan dut nik.

-Azkenean ez duzu egin behar?

-Nola nahi duzu egitea? Niregatik izango balitz... baina ziur nago ez didatela utziko.

-Ez etsi! Baliteke azkenean gauzak aldatzea.

\*\*\*\*\*

Eguna argitzearekin batera, irakasleak mugimenduan hasi eta denak esnatu gara. Oraindik goizeko zazpiak dira eta! Hau gogoak altxatzekoa! Buelta hartu eta gosaltzera joateko deia entzun arte ohean geratu gara. Orduan komeriak! Hor ibili gara denak, korrika eta presaka, ez dakit ez ote dugun arropa alderantziz jantzi. Gaurkoan ere, izugarrizko jende pila bildu gara jangelaren atearen parean, hori iruditu zait niri behintzat. Atzo bezala, toki berdinetan eseri gara, sukaldetik gertu-gertu eta beraz, guk egin dugu lehenengo gosari-legea. Bukatutakoan eta irakasleek gosaltzen zuten bitartean, motxila prestatzera bidali gaituzte. Segituan ginen autobusa hartu eta puenting, tirolina, rafting... egingo genituen lekura bidean.

-Azkenean iritsi da eguna!!!- deiadar egin du pozez saltoka Mirenek.

Ni ez noa horren pozik. Horrenbeste denboran itxarondako eguna hanka bihurritzeagatik hondatu dela pentsatzeak, tristura handia ematen baitit.

-Joan naiteke zubira jauziak ikustera, nahiz eta puenting ez egin?- galdera egin diot irakasleari.

-Noski baietz! Zergatik ez ba?

Behintzat bertara joateko aukera badut eta argazki-kamera daramadanez, besteei aterako dizkiet argazkiak. Ordu laurden eskas pasa ahala, autobusa geratu egin da.

-Iritsi gara?- izan da denen galdera.

-Bai. Orain autobusetik behera jaitsi eta apur bat hitz egin ondoren, bakoitzak bere bidea hartuko dugu. Ados?

Beraz, nolabaiteko hitzalditxo eman eta zubirantz abiatu gara. Han, irakasle bat dugu zain, dagoeneko sokak eta beharrezko gainontzeko materialak prestaturik. Ilara bat egiteko eskatu digu, horrela, lehenengo iritsitakoak, lehenago egingo dute salto. Niri, dirudienez, horren aurpegi tristea ikustean, ea zergatik ez nuen salto egiten galdetu dit eta berehala hanka erakutsi diot.

-Horrenbesteko gogoia baduzu, ez dut salto egiteko arazorik ikusten. Zuri zer iruditzen zaizu?- galdetu dio irakasleari.

-Egin ahal duela badiozu...

Hau egun pozgarria. 5 bat minuturako soka batzuk gerrian loturik, zubiaren ertzean nago salto egiteko prest. Bultzadatxo bat besterik ez dut behar esperientzi berri bat probatzeko.

**Irati Otamendi Urbiztondo**  
***DBH 2***